


Neurona berriak ahanzturaren eragile

Sagu, akuri eta bestelako karraskari batzuekin egindako ikerketa batek on-dorioztatu du garunean neurona berriak sortzen direnean ahazte-prozesu bat ere abiarazten dela. "Uste dugu neurogene-siak oroimenean eragin bikoitza duela: hipokanpoan neurona berriak agertzean oroitzapen berriak gordetzen laguntzen dute, baina baita zaharragoak ahanzte eragin ere". Paul Frankland zientzialari kanadarraren hitzak dira. Bera, *Science* aldizkarian artikulua argitaratu duen Torontoko Haur Gaixoen Ospitaleko ikerketa-talde bateko partaidea da. Eta, ikerketan zein artikuluan, Japoniako Toyoakeko Medikuntza Zientzien Institutuko talde batek ere hartu du parte.

Ikerketan egindako esperimintuetako batean, zientzialariek, ingurune jakin batean, deskarga elektriko txikiak eman zizkieten saguei, beldurra eragiteko. Ondoren saguetako batzuk gurgpilean jarri zituzten, biraka. Izan ere, frogatua dago ariketa fisikoa egitea ona dela neurona berriak sortzeko. Ikertzaileek ikusi zuten ariketa egindako saguek inguru jakin horrekiko zuten beldurra galtzen zutela; gurgpilean biraka ibili ez ziren saguek, berriz, ez.

Bestalde, sagu jaioberri talde bati, neurona berriak sortzeko gaitasuna murrizten duen droga bat eman zitzaion. Drogarik jaso ez zuen taldeak baino oroimen hobea erakutsi zuten.

Azkenik, lana biribiltzeko, neurona helduekin jaiotzen diren bestelako karraskari batzuekin egin zituzten esperimintuak, akuriek, adibidez.



ARG.: JASON SNYDER.

Eta egiaztatu zuten oroimen handia dutela, baina neuronak sortzea eragiten duen botika bat emanda, oroimen-ara-zoak izaten hasi zirela.

Artikuluan esaten denez, neurona berriak sortzean oroitzapenak galtzea guz-tiz beharrezkoa da, oroimenari modu eraginkorragoan lan egiteko aukera ematen diolako.

XX. mendeko bigarren erdira arte, jaio eta gero neuronarik ez zela sortzen uste

zen, baina gaur egun jakina da neuronak bizitza osoan zehar sortzen direla. Neurona berri horiek lehendik zeuden neurona-sareetan integratzen dira, eta informazioaren prozesamenduan hartzen dute parte. Hortaz, neuronak sortzea, ikasteko eta oroimen ona izateko behar beharrezkoa dela pentsatu izan da orain arte. ●



Etor zaitetz ezkutuko ingurune natural hau ezagutzera eta abenturaz gozatzera

Sobrongo abentura-zentroa

kanoa, kayak, paintball, mendi-ibilaldiak, orientazioa, mendi-bizikleta, arku-tiroa, igerilekuak...

01423 Sobron (Araba)
tel.: 945 359016
faxa: 945 359137
<http://www.aventurasobron.com>
h. el.: info@aventurasobron.com



Eskola-umeentzako prezio bereziak